

## **Diru-iturriak**

Hainbat modutara lortuko ditugu sarrera iturriak, eta horietako hainbaten bidez, gure kostuei aurre egingo diegu, eta mozkinak aterako ditugu.

Sarrera-Iturri nagusiak, gure aktiboen salmentatik lortutakoak izango dira. Honako taula honetan eskaintzen ditugun zerbitzu ezberdinak eta beraien prezioak agertzen dira.

<b>Erosketak egitea</b>	<b>Etxeko zaintza edo laguntza( janaria, konpainia, paseatzera ateratzeagatik...)</b>	<b>Haurren zaintza eta medikuarengana laguntza</b>	<b>Etxea garbitzea</b>
12,5€/ordu	10€/ordu	14€/ordu	12,5€/ordu



Prezioen taula horretatik, guk guztia jasoko dugu eta ondoren, soldaten, zergen eta kutxaren artean birbidaliko dugu diru hori.

Bestetik, gure enpresa, gizarte erantzunkizunean oinarritzen denez, gehien bat emakumeen segurtasuna bermatzen duen arloan, gobernuari diru-laguntzak eskatuko dizkiogu. Kontuan izanda gure aplikazioak gizarteari babesa eta segurtasuna eskaintzen dioela, eta gaur egun estatuak gai horretan inbertsio handiak egiten dituela.

